

BEASAIN / Ipuinak nola egin jakiteko ikastaroa eskainiko zaie gaztetxoei liburutegian

Urrian eta azaroan izango da kurtsoa, eta udal liburutegian eman behar da izena

U. Barandiaran

Literatur sormena landuz ipuinak nola egin jakiteko ikastaroa izango dute aukeran 7 eta 9 urte arteko gaztetxoek Beasainen. Urrian eta azaroan da kurtsoa, baina dagoeneko eman daiteke izena, liburutegian.

Maite Franko ipuin kontalariak zuzenduko du tailerra eta 90 minutuko 8 saio izango dira guztira. Helburuen artean honako hauek aipatu dituzte antolatzaileek, besteak beste: haurrak ipuinen eduki eta egiturak aztertzeke gai izatea, ipuin mota ezberdinak ezagutzea, ipuin baten atzean dauden mezuak aztertzea eta ipuinen sormena eta azterketaren bitartez irakurzaletasuna bultzatzea.

Eduki horien bidez bi trebetasun mota landuko ditugu ikastaro honetan: azterketarako gaitasuna eta sormenerakoa, zehaztu dute antolatzaileek. Saioetan nahasi egingo dituzte elementuak.

Tailerrei bukaera emateko asmoz, azaroaren 27an saio berezia egingo dute. Hizkuntz jolasak landuko ditugu haurrentzat, haur folklorea berreskuratzeko xedearekin. Asmakizunak, atsotitzak, aho korapiloak, olerkitxoak... mendetan belaunaldiz belaunaldi eta ahoz aho transmititu diren hizkuntza jolasak bihurtuko dira protagonista.

Azken saio horrekin hurrek haur folklorea ezagutu eta hizkuntzarekin jolas egin dezaten lortu nahi dute antolatzaileek.